

## KANALA

Idea interesgarria izan daiteke gure aplikazioa beste aplikazio batzuetan agertzea iragarki bezala. Azken finean, pertsona gehien erabiltzen dutenek aplikazio eta web orriak gazteak dira eta gehienbat gazteei zuzenduta egon daitekeela pentsatzen dugunez, modu azkar batean eskuragarri izan dezaketela uste dugu. Aplikazio horiek Instagram, YouTube, Facebook, Twitter, TikTok... Hori gutxi balitz, telebistan iragartu dezakegula uste dugu.

Baita medikuetan aplikazio hau iragartzen diren papeltxoak eman daitezkeela pentsatu dugu ere. Medikuek eman dezakete behar duten pazienteei edo ikusgarri eduki dezakete osasun zentrotik zehar. Medikuek edo hospitaleak leku seguruak dira eta arrazoi horregatik papalak banatzeko leku aproposa dela ikusten dugu.

Hauek gain, integrazio sozialean lan egiten duten lankideak dituzten pazienteei gure aplikazioari buruzko informazioa eskaini diezaioke.

Oso garrantzitsua izango da Gobernuak eskainiko digun laguntza, publizitatea, babesgarritasuna eta ofizialtasuna emateko. Gainera, leku publikoetan iragarki ahalko dugu gure app-a, honela jende gehiagori helduko da.

Oso argi dugu gure iragarkiak errealistak eta indibidualak izatea nahi ditugula, hau da, beste gai batzuekin ez erlazionatzea, ezta gaiari buruz ez dakien pertsonekin erlazionatzea, azken finean, erlazio txar bat baldin badago, iragarkia eta aldi berean gure app-a sinesgarritasuna galtzen du. Horrekin batera gure iragarkiak app-aren helburua argi eta garbi azalduko dute, gainera, zertifikatu segurua erraztuko dugu.